

BAIMEN BEREZIAREN INDARRALDIA

Zirkulazio-baimen bereziaren gehieneko indarraldia urtebetekoa izango da, ibilbidea igarotzen den bideetako administrazio titularren batek epe txikiagoa adierazi ez badu.

Hala ere, IEOn IX. eranskinaren aldaketak baldintzatuko du ematen diren baimenen indarraldia; ibilgailu motordunen, atoiaren edo erdiatoiaren gehieneko masa- eta luzeramugetan eta baimen-araubidean aldaketak ekar ditzakeelako.

Baimenak indarrean dauden bitartean, bidaia kopuruak ez du mugarik izango, eta baimenak barne hartzen dituen ibilgailuekin konfigurazio euro-modularreko talde bat baino gehiago era badaitezke aldi berean zirkula dezakete.